

GOBERNU BATZARRA

2017 05 08

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren zortzian, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	
Nerea Letamendia Belloso	
Jokin Azkue Arrastoa	
Iñigo Alonso Sarasibar	
Beh. Beh. Idazkaria:	
Karmele Contreras Goikoetxea	
Kontuhartzaitza:	
Ainhoa Molinos Zubiaurre	
	1.- Aurreko akta onartzea.
	2.-Olarrain Elkarteak Udalari egindako erabilera hitzarmenaren proposamena.
	3.-Tolosako Bizikidetzako Foroaren 2017ko dirulaguntza ordaintzeko proposamena.
	4.- Tolosako Udalaren eta Bedaio Artubi auzo elkartearen arteko hitzarmena.
	5.- Iurreamendi Egoitzak aurkeztutako 4/2017 zka. duen faktura zerrenda.
	6.-22-23/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko apirilaren 24an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Olarrain Elkarteak Udalari egindako erabilera hitzarmenaren proposamena.

Tolosako Udala Tolosako Olarrain Azoko Eskola Etxea izendutako eraikinaren jabea da.

Olarraingo Lagun Arteak elkarteak interesa du aipatu lokala erabiltzeko eta horretarako arautuko duen hitzarmen-proposamena aurkeztu du.

Era berean, ihardueren Memoria aurkeztu du eskatutakoekin batera. Irabazi asmorik gabeko erregistroan ere inskribatuta dago.

Eskaerari buruz, idazkariak aldeko txostena egin du.

Hitzarmenaren ezaugarriak ikusi ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea aurkeztutako hitzarmenaren proposamena. Lagapenaren ezaugarri nagusiak hauek izango dira:

** “Prekariozko izaeran” uzten zaio, gehienez ere urte bateko iraupena izango du, kontratu hau sinatzen denetik kontatzen hasita. Era berean, lokala libre utzi beharko da Tolosako Udalak hala eskatzen badu. Kontratua bukatu ondoren, luzatzeko aukera izango da, urtez urte, lau urte arte.*

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Idazkaritzari eta “Olarraingo Lagun Artea” elkarteari.

3.- Tolosako Bizikidetza Foroaren 2017ko dirulaguntza ordaintzeko proposamena.

Tolosako Bizikidetza Foroak, 2017. urterako, 3.569,50 euroko dirulaguntza eskaera luzatu dio Udalari, aurtengo martxoaren 16an. Eskaeran bertan, aurkeztutako ekitaldi eta ekimeneko aurrekontuaren oinarrituta, %70eko aurrerapen bat eskatzen dute, urtean zehar sortuko diren gatuei aurre egin ahal izateko.

Eskaera aztertu eta gero, kontuan izanik Bizikidetza Foroak Tolosan egiten ari den lana bizikidetza alorrean, eta Alkateak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea eskatutako dirulaguntza.

BIGARRENA.- Jarduera martxan jartzeko sortuko zaizkien gastuei aurre egin ahal izateko, 2.498,30 euroko dirulaguntza aurreratzea (aurreikusitakoaren %70). Horretarako zergak eta Gizarte Segurantzeko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

HIRUGARRENA.-Bigarren zatia jasotzeko Bizikidetza Foroak hurrengo agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

* Tolosako Udalak diruz lagundutako jardueren memoria, diru-kontuen balantzea, zergak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak, eta dirulaguntza osoa zuritzeko adinako fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuta.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Tolosako Bizikidetza Foroari.

4.- Tolosako Udalaren eta Bedaio Artubi auzo elkartearen arteko hitzarmena.

Bedaio Artubi elkartearekin 2008an sinatu zen hitzarmenaren epemuga bukatutzat eman da.

Ondorioz Udalak eta Elkartea lanketa egin dute eta hitzarmena berria sinatzea adostu da.

Bedaio bizilagunak antolatzeko modua egitea, auzotarren bizitza kalitatea hobetzeko egin beharretan aktiboki eta arduraz parte hartzeko eta laguntzeko helburua du hitzarmen honek.

Hitzarmenak legegaldiko iraupena izango du eta urtebeteko luzapenak egin ahal izango dira, nahi hori idatziko agirian formalizatuta.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- Onartzea aurkeztutako hitzarmena. Dena den, baldintza hauek jartzen dira:

*Lehenengo klausulan ondorengoak agertuko dira:

“Udalak konprimosak hartzen ditu bere baliabideen arabera eta alde aurretik behar diren izapidek eginda eta organo eskudunak behin onetsiz gero.

* Bigarrenengo klausulan, segimendu batzordeari buruz bi zinegotzi egongo dira.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Bedaio Artubi Elkarteari.

5.- Iurreamendi Egoitzak aurkeztutako 4/2017 zka duen faktura zerrenda.

Iurreamendi egoitzak **4/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **12.257,14** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Iurreamendi Egoitzak aurkeztutako **4/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta Iurreamendi Egoitzari.

6.- 22-23/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzarak **22/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **222.191,51** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **22/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzarak **23/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **286,18€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **23/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA